XXXIII - garren urtea 539-540 - Zenbakia

1973 — UZTAILAK, 1 eta 8

zeruko ARGIA

IDAZKOLA TA BANAKOLA: OKENDO, 22 - SAN SEBASTIAN - TEL. 426666 - PREZIOA 7 PEZETA

## NON ZER


- IDAHO
  Larresoro ... ... ... ... ... ... ... ... 3 garrenean
- ITSASOETAKO BORROKA
  Lanteri ... ... ... ... ... ... ... ... ... 5 garrenean
- ITSASOA LAIÑO DAGO
  Atxukale ... ... ... ... ... ... ... ... 6 garrenean
- ARRANTZARAKO ONTZIAK ETA MOTORREN INDARRA
  Lekuona ... ... ... ... ... ... ... ... 7 garrenean
- ZUMAIAko jaiak ... ... ... ... 12-13 garrenetan
- LASARTEko jaiak ... ... ... ... 14-15 garrenetan
- USURBILko jaiak ... ... ... ... 16-17-18 garrenetan


# GREGORIO IRIARTE, ARRANTZALEA

## Pasaian sortu ziren lehenengo patroiak

## Pasaia «ateuna» arrantzorako era berriaren maixu

Donostian jaioa dugu Gregorio Iriarte, baina Pasaian bizi da oso aspaldidanik. Aita zena ere Pasaiakoa zuen. Hain zuzen ere Trintxerperi izena eman dion «Trintxer» baserrikoa.

Hamalau urtetan hasi zen itsasoan lanean gure Gregorio. 1922an hasi eta 1962ra arte jardun da itsasoan. «Ziriza» etxean egin zuen 22 urtez lan. Frantsesez «Bou» eta euskeraz «Ateuna» deitzen zaion arrantzoan. Ontziak bi ate dituztelako deitzen diote «Ateuna». 1932tik aurrera patroi bezala ibili zen. Aurrena Agustin eta Migel izeneko ontzietan. Hurrena Martze eta Lina izenekoetan. 1941garrenean lan-etxez aldatu zen.

Gaur lanari utzirik dago, zahar-sariturik, alegia. Gaur gertatuak balira bezalaxe gogoratzen zaizkio gauza guztiak. Noiz, non eta nola, dena buruan dauka. Maite du itsasoa eta maitasunez esaten ditu bertako kontu guztiak.



—Esango al zeniguke nola hasia den «Ateuna» era hau?

**—"Mercader" etxea hasi zen lehenik era hontan lanean. Hamaika itsasontzi izateraino iritxi zen garai haietan. Gaur ez du bat bakarrik ere. Hemendik joan ziren Coruñara arrantzo era berri hau erakustera. Hemendik joan ziren lehenengo patroiak. Gogoan dauzkat oraindik haien izenak: Roman Amunarriz, izengoitiz "Zarpalla", Domingo Txurdiña, Zoilo Lizaso, Tomas Iriarte...**

—Baina patroiekin bakarrik ezer gutxi aurreratuko zuten. Ez al zen beste inor joan?

**—Bai, sare kontuan maixu zirenak ere joan ziren: Paulo Sarasua bere bi semeekin, Iñaxio eta Paulorekin eta Madalena Amunarriz. Kontramaixu edo sokak ere joan ziren: Joxe Mari eta Ziriako Arrizabalaga anaiak, Joxe Agote eta Baionako Piert. Hoietatik sortu ziren lehengo patroi gallegoak: Antonio Lustres "Estaca", Noyako Benito eta Antonio, "Racu".**

—Arrantzorako era berri hau indartuz joan al zen ala ahulduz?

**—Indartuz joan zen 1929ra arte. Gero ontzi bikoak sortu ziren eta gainbehera abiatu zen "Ateuna". Baina gaurregun indarrean dago berriro.**

—Noiz hasi ziren honera gallegoak etortzen?

**—1922-1923 inguru hortan ez zen ia bat bera ere. 1928tik 1936ra bitartean asko etorri zen.**

—Zer dela eta etortzen hasi ziren?

**—Antxoa garaian eta hemengo arrantzaleak beren herrietara joaten ziren. Ia arrantzalerik gabe geratzen ginen arrastrerako. Horregatik esku-lanerako langileak behar ziren. Orduan hasi ziren gallegoak etortzen.**

—Patroi asko al dago gaurregun euskalduna?

**—Ez, oso gutxi. Gallegoak hartu dute aginpidea. Euskal-patroiek ez dute beren semea itsarora bidali nahi izan. Ikastera bidali izan dituzte. Halere nere bi seme itsasoan dabiltza.**

—Asko aurreratu al da ordutik honera itsasoko lanean?

**—1928an hasi ziren argindarrezko sonda edo eskandaioak. Telegrafia Españian 1922an hasi zen. Telefonia, berriz, hemen 1927-28an ezagutu zen. Lehen esku eskandaioak erabiltzen ziren. Eskuz ardatz batean biltzen zen kable mehe-mehea izan ohi zen. Eskandaio borobil bat zuen muturrean askatu ahala murgil zedin uretan. Honela jakiten genuen azpian zer geneukan, eskandaioak segoa eramaten bait zuen muturrrean. Hondarra bazegoen hondar aleak ekartzen zituen gora eta txirlak bazeuden txirla markak.**

—Eta honek zer aldaketa edo aurrerapen ekarri du?

**—Zenbait tokitan orduerditik orduerdira eskandaioa askatzen eta biltzen jardun behar zen. Denbora asko galtzen zen. Bidea ere askotan luzatzen zen alferrik. Gaur berriz, bat ere bide eta denbora galtzerik gabe joan diteke noranahira. Garbi markatzen du argindarrezko eskandaioak non dagoen, azpian zer daukan, zenbaterainoko hondoa daukan eta abar. Gaur hontan harrigarrizko tresnak daude. Gaur zuzen-joan diteke bat ere biderik galdu gabe. Gaur bide-galtzea egiteko oso utzia eta nagia izan behar da.**

—Zer alde ikusten duzu lehengo arrantzaleetatik gaurkoetara?

**—Lehengoek erantzukizun gehiago zutela uste dut. Senideak bezala elkar zaintzen zuten. Gaur ez bezalako elkarteak zituzten beren eskubideak zaintzeko ere. Orduan denak batera hartutako erabakia agertzen zitzaion nagusiari. Gaur askotan nork berak bakarrik joan behar izaten du gaizki dauden gauzak salatzera. Besterik gabe gaizki ikusia eta begitan hartua geratzen da aurpegia ematen duena. Lehen elkartasun hobea zela uste dut arrantzaleen artean. Bahontako eta bestaldeko euskaldunak. Gaur berekoikeria gehiago dagoela uste dut.**

—Patroiak ez al zuen oso mende hartzen arrantzalea?

**—Onak ziren gehienean patroiak. Baina baziren gogorrak ere, mingain txarrekoak. Edozer gauza esaten zutenak. Besteren ama, mingainez bederen, kakazten zutenak. Eta hori oso gaizki dago. Errespetoa zor zaio mendekoari. Arriskukoa da gainera itsasoan. Edonork sartu lezaioke eskuan daukan labana. Gertatu izan dira honelakoak itsasoan.**

—Denek al zekiten sareak josten?

**—Bai, denek ikasten zuten. Ez zekienak patroiari lagundu behar izaten zion edo jostarratzean lokarria sartzen jardun behar izaten zuen. Aspertu egiten zen patroaiaren ondoan ezer egin gabe. Ordu luzeak bakarrik ez igarotzeagatik ikasi egiten zuten denek sareak josten eta lotzen. "Ateuna"ko arrantzaleak dira itsas-lanetan ikasienak.**

—Arrantzale guztiek berdin irabazten al dute?

**—Bai. Urte asko itsasoan lanean jardun denak eta berriak berdin irabazten du. Ikasia izan ala ez izan, berdin jasotzen du. Horrek nere ustez oker haundiak ekartzen ditu. Nere ustez ikasiak zerbait gehiago merezi duela uste dut. Ez du behar bezala lan egiten aurreneko aldiz doanak. Sarri izaten ditu txorabioak ere eta orduan lana besterik ez du ematen. Ez dut uste ondo dagoenik berdin jasotzea egun bat daramanak eta hogei urte daramazkienak.**

—Zuk fotografiak ateratzeko zaletasun haundia izan omen duzu.

**—Oso mutikotatik nintzen hortara oso zaletua. Baina nere argazki guztiak itsasokoak eta itsas ingurukoak izan dira. Badut eguzkiaren sarrerarekin ere bat ona. Almeriako sariketara eraman nuen Karlos Fagoagaren erreguz. Aurreneko saria irabazi nuen.**

—Zer alde dago lehen eta orain irabazietan?

**—1932an aski zen egunean 400 pezeta ateratzea ontzi baten gastuak estaltzeko. Gaur 35 edo 45 mila pezeta behar dira egunean. Hilean 250 pezeta irabazten zituen mariñel batek. Kontramaixuak 300. Gaur, berriz, mariñelak 18 mila eta kontramaixuak 25 mila hilean. Legatzak esate baterako 1,50 edo 3 pezeta egiten zuen kiloak. Gaur 100dik 150ra bitarte hori egiten du.**

—Hobeto horniturik al zeuden lehengo itsas gizonak seguro aldetik eta abaretatik?

**—Bai. Zaharrak, esate baterako, bazuten beren bizibidea nahiz eta lanik ez egin. Bazituzten beren alkarteak ere eskubideak zaintzeko.**

—Nondik ekarri zituzten «Ateunak»?

**—Lehen esan dizudan bezala "Mercader" etxekoak izan ziren aurrenekoak. Inglaterratik ekarri ziren. Burnizkoak ziren. Donostian zuten "kamingantxo" deitzen zioten baradorea. Donostian sartzen bait ziren beren arraiak uztera.**

—Itsasontzien izen batzuk?

**—Lehengoenak: Nere Aingerua, Nere Maitea, Nere Fedea, Pakitatxo, Felix Ziriza, Pasaia, Donostia, Gure Ametsa, Gure itxaropena, Ernio, Igeldo, Maite, Euzkadi, Plin, Gipuzkoa. "Plin" esate baterako "a mi plin" esaten zuen jabeak jarri zion. "Amiletxe" berriz, "a mi leche" eskatzen zuenak. Guarkoen izenak: Punta kalparra, Migel, Ogoño, Izaro, Olabarria, Laga, Lanfon, Kapredi...**

—oOo—

Lehorrekoei bost axola dien gorabeherak dituzu asko. Baina itsasgizonak bere gorputzeko zatiak bezala maite ditu itsasoko ontziak, sareak, arriskuak, lagunak. Ez zaizkie ahaztutzen itsasoan galdutako lagunak. Ontzia hondoratu eta salbatutakoak. Gaur gertatua bezala kontatu digu ontzia bi puska egin eta bidoi baten gainean olatupetik atera zen gizonarena. Bizi bizi kontatzen ditu Gregoriok itsasoko gorabehera guztiak. Tamalez guk ez tokirik gehiagorako.

ERRIALDE

(c) Ministerio de Cultura 2005

# Arrantzarako ontziak eta motorren indarra

E. Lekuona

Itsasontzi asko dira Euskal Herrian. Gehienak, arrantzarako ontziak eta batez ere txikiak. Ontzi hauetaz lan gutxi egin da orain arte idazti aldetik. Gai hontaz egin diren lanen artean ez da laguntzarik aurkitzen horrelako ontzietan azken urte hauetan egin diren aurrerapenak erabiltzeko. Teknologia aldetik asko aurreratu da baino oraindik ez da idaztietan aurrerapen horien berririk eman.

Ontzigintza arte bat da, batez ere zurezko ontzi txikiak egitea. Semeek gurasoengandik ikasi dute eta gurasoek aitonengandik. Honelaxe, urte askoren buruan sustraitu da oraingo ontzigintza eta ezin dezakegu uka oso ontzi onak lortu direla.

Bainan gure egunetan aurrerapen bideari jarraitzea beste erremediorik ez dago. Horretarako, zerbait ikasteko zoria izan dugunok, zientziaren mamia eta hortik datozen ondasunak herriaren eskuetan jarri beharrean gaude.



Kalkuloak egiteko erabilli den ontzitxoa

## ASIERA

Orain illabete batzuk, Ondarrabiko ontzi baten "plantilla" eskura ahal izan nuen, hau da, ontzia egiteko marrazkia, arotzak egiña. Ontzi honetaz gauza gehiago ikasi nituen gero, elize berria jarri bait nion obeto ibil zedin. Bestalde, ontzi hau azken orduko modeloa zen eta asko daude neurri berdiñekoak. Horregatik, ontzi hau artu nuen ikasketa hauei asiera emateko. Errazenetik asi naiz aztertzen, hau da, ontzi honen sagatik. Saga aunditzuz dijoan bezala, ontzia azkarrago ibiltzen da. Hauxe da lan txiki honetan agertu nahi nukeena.

## SAGA

Honela deitzen diote arrantzaleek, Ondarrabian behintzat. Saga da ontziak uretan ibiltzean sumatzen duen indar atzerakoia. Elizeak indar hau hainbesteko indarra edo bultzada eman behar dio ontziari, honek aurrera egin dezan.

Zenbat eta ontzia beteagoa, orduan eta saga aundiagoa sumatzen du eta motorra indartsuagoa jarri beharko zaio, nahi hainbeste korri egin dezan. Zenbat eta liraiñagoa izan ontzia, orduan eta saga gutxiago. Tonelada bereko ontziek izan dezakete saga desberdiña, ontziaren neurriaren, moldearen eta betetasunaren araberan.

## ONTZIA ETA BERE IRUDIA

Gutxi gora behera saga kalkula diteke baiñan ontzi txiki hauetako egiten diren kalkuloak nahiko erru izan ohi dute. Neurtu ere, neurtu diteke saga bera. Hortarako ontziaren proporzio berdineko maketa bat egiten da, gero putzu batean jarri eta lokarri batekin tenkatuz joan. Tenkaldiaren indarra neurtu, ontzitxoak lortzen duen abiadura ere bai eta neurri horiek oiñarri direla egiten dira kalkuloak.

Azterketa hau egiteko erabilli den maketa burnizkoa da eta hauek bere neurriak:

| NEURRIAK | | ONTZIA | IRUDIA (MAKETA) |
|---|---|---|---|
| Luzera | (m.) | 18,85 | 1,30 |
| Zabalera | (m.) | 5,80 | 0,40 |
| Sakon | (m.) | 3,30 | 0,23 |
| Kalazioa erdian | (m.) | 2,35 | 0,16 |
| Potentzia | (zaldiak) | 200,00 | — |
| Itzuliak minutuan | | 1.240,00 | — |
| Reduktoria | | 3:1 | — |
| Azkartasuna | (millak/orduan) | 9,2 | — |
| Betetasuna | ($C_b$) | 0,41 | 0,41 |
| Zorroztasuna | ($\beta$) | 0,677 | 0,677 |
| Liraintasuna | ($C_p$) | 0,606 | 0,606 |

## NEURTUTAKO SAGA

Honelaxe neurtutako saga agertzen dugu lehenengo marrazkian. Hor ikusten da azkartasun bakoitzean nolako saga sumatzen duen ontziak eta kalkulo txiki baten bidez jakin diteke elizeak eman behar duen bultzada.

## MOTORRAREN POTENTZIA

Bainan elizearen potentzia baiño jakingarriagoa da motorraren potentzia. Horregatik jarri ditut bigarren marrazkian potentzia-kalkuloak, neurtutako saga hori kontuan arturik.

Marrazki honetan ondo garbi ikusten da azkartasunarekin potentzia nola aunditzen den. Aunditze honetan iru alderdi ikusten dira:

Lehenengoan, potentzi gehixeagoko motorra jarri ezkero, ontziak askoz gehiago korritzen du. Irugarren alderdian ordea, nahiz eta potentzia asko aunditu izan, azkartasunean oso gutxi irabazten du. Bigarren alderdia tartekoa da eta hemen potentziaren eta azkartasunaren aunditzeak berdintsuak dira.

Iru alderdi hauek marrazkian honela izendatu ditut: indar gutxiegi, indarra bere neurrian eta indar gehiegi.

## HEMENDIK ZER IKASI

Garrantzi aundia du ekonomiaren aldetik indar gehiegi jartze horrek. Adibidez, ontzi honek 260-ko motorra izan balu, orduko 10 milla egingo zituzkeen; 400 zalditako motorrakin berriz, 10,4 milla egin izango zituzkeen. Oso gutxi irabaztea litzake.

Larehun zalditako motorrak duen gastua 260 koak baino aundiago da eta ez du merezi orduko 0,4 milla irabazteagatik. Dirua botatzea da.

Gaur arrantzaleak oso azkar ibilli nahi izaten dute itsasoan eta horretarako gero eta motor aundiagoak erosten ari dira, indar gehiegi alderdian erortzen ari direla. Dirua botatzen.

## ZER EGIN

Potentzia aunditzea, saga aunditzearen ondorioa da. Saga ez hain azkar aunditzearren, ontzia liraindu eta formak aldatu egin behar dira. Ontzien arazoa aztertu egin behar da, orain nahi diren abiadurak lortzearren, bai eta aundiagoak ere behar bada.

Ontzi bakoitzak badu berari ondoen dagokion neurriko motorra eta motor bakoitzak bere neurriko kaskoa.

E. L.




SAGA-AZKARTASUNA




POTENTZIA-AZKARTASUNA

MITXELENA
ORDULARI ETA BITXITEGI
Zatoz gugana anuntzio honekin
eta KANARIAS-en baino merkeago
erosiko duzu zure erlojua
Matxin Arzu, 1 ONDARRABI

CAN
Donosti'ko Erri-Etxe'ko Aurrezki Kutxa
EUSKAL IRRATI SAIOAK

Banen baneko azikai
Ongarri ta abonoak
Belar Zuloak
Erosi edo berritzeko diru aurreratzea
Baserri, lur-tresnak ta abar
Torelavega'ko Perira joan etorriak
Baserriaren alde

ESTABLECIMIENTOS ayestaran DONOSTIA
FERRETERIA
BURNI - SALGAIAK
Urbieta, 25
ELECTRODOMESTICOS
ETXERAKO ELEKTRO-TRESNAK
Urbieta, 27 - Isabel II, 2
RAILITE
LEGEZKO ZABALTXAILLEA
Aldecoas 4
Urrutizkiñak:
44300 ta 426787

(c) Ministerio de Cultura 2005

**CAJA DE AHORROS MUNICIPAL DE PAMPLONA**

SARASATE, 5 TELEFONO 224440

Onen ajentziak erri auetan dituzu:

Tudela, Billaba, Huarte-Iruñe, Etxarri-Aranaz, Txantrea, Errotxapea, Azagra, Eneritz, Martzilla, Isaba, Huarte-Arakil, Ensanche, Lerin, Otxagabia, Karkar, Olazagoiti, Sartaguda, Ablitas, Milagro, Fitero, Kadreita, Andosilla ta Noain-Beriain.

Agencias:

Tudela, Villava, Huarte-Pamplona, Echarri-Aranaz, Chantrea, Rochapea, Azagra, Enériz, Marcilla, Isaba, Huarte-Araquil, Ensanche, Lerín, Otxagabia, Karkar Olazaguiti, Sartaguda, Ablitas, Milagro, Fitero, Cadreita, Andosilla y Noain-Beriain.


**ZERUKO ARGIA BIZKAIKO ERRI AUETAN SALTZEN DA:**

MARKINAN
M. Loli Aginaga,
Artibay, 24

SONDIKA-ASUA
E. Asterioa

LARRUSKAIN
Parrokia

GERNIKA
Ruiz Bustillo

ONDARROA
M. Zulaika

BILBAO
Librería Armendáriz
Dr. Areilza, 50
Librería Azkategui
Cinturería, 4
Librería Bilbaína
Plaza de los Mrtires, 2
Librería Verdes
Correo, 7

GALDAKANO
- I. Altuna
Urreta, 34

ABADIANO
I. E. Zubero
S. Prudenzio, 7


**NORK KUKURRUKU¡¡¡¿¿¿**

OLLARRAK

OLLOTEGIAN?

...Ez. FAGOR'ek

sukaldian

**TRANSPORTES azkar**

ERAMAN - EKARRIRAKO KAMIOI AUNDIAK
Barcelona, Zaragoza, Valencia, Madrid, Oviedo, Gijón.
Donosti'tik egunero:
Iruña, Bilbao, Gazteiz, Jerez de la Frontera, Cadiz, Alicante, Murcia, Cartagena, Granada, Almería, Santander, Valladolid, Zamora, Palencia, Salamanca-ra.
Astean iru aldiz:
Sevilla, Lugo, Coruña, Orense eta Vigo'rà.
Carretera Gral. a Hernani - B.° Ergobia - DONOSTIA
Telefonoak: 450313 eta 459723
Aptdo. 1381
Aptdo. 1381

**aristegui hermanos**

ZORUAK ETA ESTALKIAK,
PERSIANAK, ATEAK, ETA ABAR.
GARBITOKI ETA ITURKINTZA GAIAK.
ERAKUSTOKIA:
FUENTERRABIA, 19 - URRUT. 11459
DONOSTIA

ETXEKO - ANDRE: IRAUN ARAZI ZURE ARROPEI ONOKO JABOI ONEKIN:

JABON LAGARTO

Zure garbiketa makinaz egiten ba'dezu
ATOMIZADO LAGARTO — jaboia erabilli beti
Eskuz ba'zabiltz, LAGARTO — jaboia bear dezu erosi

JABON LAGARTO, garbiketarako jaboi bakarra
Etxeko-andrearentzat neskamerik egokiena.

¡JABON LAGARTO!





Dendariek beren zerbitzuak eta arremanak gaurko momentoari dagokion eran zuzendu ditzaten "Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa" etxeak DIRU-KONTU BEREZIA antolatu du dendarientzat. Ara bere ondoren onak:
- Zerbitzu ugariak:
ondasunak zainduaz, letraen kobrantzak erraztuaz, ordainketak zuzenduaz, atzerriko diru arazoak konponduaz, zerga, aseguro eta abar ordaindu ditzakezu bertan.
- Argitasun eta informazioa noiz nai: eguneroko berria jaso dezakezu.
- Gure artuemanak eroso eta erraz egingo dituzu, 89 ofizina bait ditugu zure zerbitzurako.

**DIRU KONTU BEREZIAK DENDARIENTZAT**

Benetan onurakorra zaizu: zerbitzuak ugaltzen dituelako, arremanetan erreztasunik izango duzulako, noiz nai argibide edo informaziorik jaso dezakezulako.

**CAJA DE AHORROS PROVINCIAL DE GUIPUZCOA**

ERLOJU ETA BITXITEGIA

Eduardo Chopeitia

Getaria 10-Urrut. 417751-Etxekoa: 422700 - DONOSTIA

**JOSE ZINKUNEGI'REN**
**OPTICA BERRIA DONOSTIAN**
URTIETAN LAN OIETAN OITUA
BARRUAN DANAK EUSKALDUNAK
Hernani, 4 DONOSTIA

**Ez Merkenak**
**Bai Onenak!**

Janari bidez izaten dira
ganadu on, indartsuak,
Eta nora jo jakin bear du
baserritar burutsuak,
Berebiziko aragi pillak;
gañera esne putzuak,
Oiek guziak berekin ditu
Fanderia'ko pentsuak.

**FANDERIA**
ERRENTERI


(c) Ministerio de Cultura 2005

# AITA SANTUTZA

## (eta II)

Vaticanoko Lehen Batzar Nagusiaz geroztik toneladaka liburu idatzi dira Aita Santutzaren nahitaezkotasuna agertuz, eta bere jatortasun eta edertasuna mila arrazoi ezberdinez goraipatuz. Hala ere Aita Santu arazoak beti bezain ilun jarraitzen du kristau eliza ezberdinen elkarrizketarakoan. Ez da pauso bat bera ere aurreratu. Zer dala eta?

Azter ditzagun laburki Eliza Katolikoak Aita Santutzaren beharra frogatzeko erabili izan dituen arrazoiak.

Hiru pundu hauetan bil ditezke:

1.—Pedro° bere «primadoa», bere nagusigoa, bere eskubideak, Jesusengandik zuzen zuzenean jaso zituen. Beraz Pedro Elizaren ageriko buru izan zen.

2.—Pedro hil zenean beste gotzai baten esku gelditu zen haren ondorengotza. Eliztar guztiek onartu zuten ondorengotza hau. Elizak beraz beti izan du ageriko buru bat.

3.—Pedro Erromako Gotzai izan zen eta Erroman hil zen. Hura hil zenean Elizarekiko nagusigoa Erromako gotzaiaren esku gelditu zen. Geroztik nagusiko honen esku aldatzea Erromako gotzaien artean gertatu da beti. Elizak beti izan duen Aita Santu hori beraz, Erromako gotzaia izan da beti.

### ARRAZOI HAUEN AZTERKETA

Arrazoiketa hau guztiz logikoa da. Hala ere ez protestanteek, ez sortaldeko ortodoxoek arrazoiketa honen egiarik aitortzen dute. Eta katolikoen artean ere, orain diodan hau nere susmoa bakarrik da, oso teologo gutxi egongo da gaur, arrazoiketa era honekin teologo protestante bat konbenzitu dezaketela usteko duenik. Zergatik?

Eliza Katolikoak Aita Santutza, instituzio era guztia bezala, hasera haseratik eta behin betirako, bere xehetasun guztietan aldaezin eta nahitaezko bezala ulertu nahi izan du. Aurrebaldintza honekin arrazoitu du beti: Egun Eliza bat egiazkoa da bere eraketa guztian Pazko ondorengo lehen elkarte haren berdin berdina delako. Eliza alda ezina da. Presupostu honekin egin dituzte beren kondaira azterketak, eta presupoztuz erabakitakoaren baieztapena arkitzea izan dute beren helburu bakarra. Hori ez da ordea beti errax gertatzen, batipat presupostua oker bidetik doanean.

Haseran aipaturiko liburu hoiek idatzi dituztenak berehala konturatu ziren kristau Elizaren lehen bi mendetako Aita Santutzari buruz azken hitz gutxi bota ditezkeala. Horregatik beren arrazoiketan lehen punduan oinarritzen dira nagusiki. Azter ditzagun laburki, lehen pundua azkenerako utzita.

2.—Pedrok lehen kristau elkartean aintzindaritza bat izan zuela gauza garbia da (aztertuko dugu gero). Aintzindaritza hori juridikoki zehaztea oso zaila da, hala ere. Era guztitara, Pedroren azken urteei buruz ezer gutxi dakigu. Antiokiatik aldegin zuenetik ez da Pedro Itun Berrian gehiago agertzen. Pedrok bere azken urteetan Elizaren barruan izan zuen egitekoaz ezer gutxi esan dezakegu beraz, eta gutxiago noski haren onodorengoak izan zezakeanaz.

3.—Pedro ziurrenez Erroman hil zen. Pedrok eta Paulok eraturikotzat bezala jotzen du Erromako elkarteak bere burua, eta hala izatean oinarritzen da sortzen ziren eztabaidetan kristau tradiziorik jatorrenaren jabe zela frogatzeko. Bainan bigarren mendeko azken aldera arte ez daiteke erabaki Erromako elkarteak aintzindaritza hori izan zuenik, eta gutxiago aintzindaritza hori, Pedroren eskubideak jaso zituelako, Gotzaiaren Aita Santutzan oinarritzen zenik. Hirugarren gizaldiaz gero Aita Santutza bat gero eta garbiago agertzen da.

1.—Lehen arrazoia, Jesusek berak ezarri zuela Aita Santutza, arrazoi gogorra da, bainan presupostu honen barruan bakarrik gertatzen da arrazoi, hots, Jesusek Eliza bere zehaztasun osoan eraiki zuelakoan. Egun ordea teologia mailan egia garbitzat jotzen da, Jesusek ez zuela zuzenki Elizarik sortu. Eliza pazko gertakizun da eta sentidu horretan Jeusen jarraile. Jesusek Elizarik sortu ez bazuen berriz, ezin Berarengana joko dugu geroztik sorturiko elkartearen barruan Pedrok zezakean egitekoa zehaztu dagigun.

### PEDROREN EGITEKOA

Eliza eboluzioaren fruitu da. Aita Santutza ere berdin. Eliza Jesusen asmoari jarraitu zitzaion neurrian gertatu zen egiazko. Aita Santutza ere berdin. Aita Santutza egiazko eta beharrezko Pedroren egitekoari jarraitzen dion neurrian gertatzen da.

Jesus Jainkoak berbiztu zuela sinestean datza Elizaren arrazoia. Hortan sinesten duelako ekiten dio haren erakutsiak betetzeari. Berbiztean du beraz oinarria, eta Pedro da hain zuzen Berbizte horren lekuko nagusi, Jesusen ikasleen artean ere leku berezia izan zuen Pedro hura bera.

Hark ikusi zuen lehenik, eta geroztik guk ere ikusi degu (Kor 1, 15), eta guk ere Pedroren sinesmen berdina dugu. Pedro berehala sinestunen batasunaren, gogo-berdintasunaren agerpen gertatzen da. Pedro izango da haseran sermolari iaioena, hura mintzatuko da sinestunen izenean. Hura gertatzen da gidari, hark zuzentzen du lehen pausoak emanik doan elkartea.

Eta hain zuzen egiteko hau betetzen zuelako ezartzen dituzte Ebangelariak Jesus eta Pedroren arteko elkar-hizketa bereziak. Hau agertu nahiz: Pedrok zuzentzen duen elkartea Jesusen asmoen jarraitzaile dela, elkarte hura ez dela Pedroren, edo gerora, Paulo bezala, sortu zitezkean lider batzuen azkarkeriaren fruitu. Jesus dela elkarte haren buru, oinarri eta arrazoi.

Lehen elkarte haren batasunak ez du ordea ezeren sentidurik, zertarako batu diren ahanzten badute. Horregatik Pedroren inguruan bildurik arkitzen den elkarte hura, munduan zehar sakabanatuko da Berri Ona zabaltzera. Hori da beren kezka nagusia eta Pedro ere hortara dedikatuko da. Zabaltzaile bat gehiago gertatuko da. Ez da bere elkartetxoari begira bakarrik gelditukо. Horregatik izkutatzen zaigu Pedro Itun Berriko idazkietan: bere egitekoaren eraginez.

### AITA SANTUTZAREN EGITEKOA

Pedroren egiteko honen jarraile bezala Aita Santutza sortu da Elizaren historian. Historikoki sortu da. Horrek ez du ordea besterik gabe bere beharraren egia ukatzen, baiezten baizik. Batasunaren seinale eta euskarri bezala sortu zen eta zabalkuntzarako indar bezala. Historia luzea izan du.

Historia horretan garrantzi handia izan du Elizarentzat. Gizaldi hoietan zehar ohizko ziren nagusikeria eta agintekerien arabera, absolutismo kutsu izugarriz hornitu da. Eliza bera helburutzat hartzeak, nor izan nahiak, indarkeriara, nagusikeriara eraman dute, kristau batasunaren arrazoi bihurtu nahi izatera. Hori ezinezkoa da. Hor ditugu lekuko kristauok izan ditugun zatiketak.

Egun galdera ez da Aita Santutza bai hala ez. Galdera beste hau da: Aita Santutza, zer? nola? Aita Santutzak batasunaren agerptn izan behar du, egiazko batasunaren zirikatzaile. Kristau Elizak zatituta gauden bitartean, besterik gabe esan daiteke Aita Santutza ez dela gaur bere osotasunean gertatzen, ezta gutxiagorik ere.

Aita Santutzaren nagusigoaz, Aita Santuak juridikoki dezakean aginteaz mintzatuaz ez goaz inora. Bere egitekoa aztertu behar da. Erromak berak aztertu behar du, zein duen bere egitekoa, eta guk kristau bakoitzak aztertu behar dugu Aita Santutzari buruz izan behar dugun jokabidea. Bide honetatik bakarrik bil gaitezke berriro kristauok. Izan ere ez al da komiko xamarra gertatzen kristauok zatituta eta guztiz beldurti gauden bitartean Vaticano guzia —bere urre eta guzti— gure batasunaren ea indarraren fruitu bezala munduari agertzea?

JEXUX MARI MUJIKA

# ELIZAREN BERRI

### MENDEKOSTE GOIHERRIN: ESPIRITU SANDUAREN ETORRERA

Ekainaren 3an, Goiherriko apaizek, aspaldi honetan bailara osoa astintzen ari den CAF-eko huelgaz, izkribu bat irakurri zuten Meza guztietan. Badakigu, aipaturiko enpresako buruzagiei mingarri gertatu zitzaiela izkribua.

Hurrengo igandean, Mendekoste eguna zen. Elizak Espiritu Sainduaren etorrera ospatzen zuen. Egun horretarako ere, aurreko igandekoari aipaturiko mingotstasuna kentzeko edo, Goiherriko apaizek izkribu bat zuten irakurtzeko, Goiherrirako bereziki egina. Zuzenean Gotzaiarengandik etorria zen. Zenbait elizatan bederen irakurri zen.

Interesgarri litzake, izkribu biak ondo samarretik analizatzea. Edonork dakizkikeen arrazoinengatik, ezin egiten ahal dut, ordea, hori hemen. Halere, lehenengo izkribuaz iritzi labur bat adierazi dudanez, azal dezadan bigarrenaz ere zerbait. Lehenengoaz buruzagiena zenez, oraingoaz (bigarrenaz) langile batena izango da, bezperan deklaratzera kuartelera deitua izan zen batena.

Delako langilea, larunbatez joan zen mezara. Eta meza amaitu orduko, han joan zen sakristiara. "Halzu, Don..., Espirituak gauzak argi eta garbi adieraziko zituela, baina hor irakurri duzun eskrito horrek ez digu halako argitasunik eman... Ez da horretan ageri, buruzagien ala langileen alde dagoen". Jakina, idatziz ezin adierazi gure langilearen aurpegi keraren urduria eta kexua.


Roger Garaudy

### PARROKIARTEKO CARITAS DONOSTIAKO DIOZESIAN

Aspaldi sortu zen Eibar aldean izen bereko erakundea. Gora-beherarik franko izan du, ordudanik, erakunde horrek.

Azkenean, halere, Caritas delako erakundeari ere, beste hainbati bezala, heldu zaio berrikuntza garaia. Hain zuzen, Donostiako gotzaiek onartua dute Caritas erakunde barruan sail autonomo berriaren, Parrokiarteko Caritas-en, araudia.

Aipaturiko sail autonomo honen helburua, giza eskubideen alde jokatzeagatik zailtasunean aurkitzen direnei laguntzea izanen da.

Badirudi, horrela, gure Caritas zaharra, indibidual mailako laguntzabide izateari utzi gabe, sozial mailako laguntzabide bihurtzen dela. Bejondaiola! Bejondaiela, batez ere, ustearen kontrako ustez horretan lan egin dutenei.

### EIZAREN EBOLUZIOAZ ELKARRIZKETA PARISEN

"Informations catholiques internationales" delako astekariaren 20. urteburua dela eta, bereran zuzendariak elkarrizketara gonbidatu ditu Congar aita teologialari sonatua, Bernard Besret Boquen-go kristau-elkartearen eragile kritikoa eta Roger Garaudy marxista famatua.

Lerro hauek idaztean, elkarrizketa horretaz, bigarren eskuko (Le Monde 10-11-VI-73) kronikatxo bat besterik ez dut begi aurrean. Mamia, halere, hor uste dut izanen dela; hala baieztatzen dit kronikalariaren izenak.

Congar-ek dioena: XII Pioren garaian nagusi izaniko "sistema katolikoaren" orde, goi-behe tankerako Eliza-ikusmoldearen orde, luze-zabal moldeko eklesiologia sortu da. Hau da: Elizaz lehen mailan jerarkikotasuna seinalatu orde, komunioa, elkartasuna seinalatzen da lehendabizi. Goi-behe bezala ikusi orde, maila bereko ikusten da Eliza.

Kontzilio ondoko garaiaren berezitasuna, honetan datza: "II Batikanoak ereindakoa ez beste zerbait sortu dela". Gazteriarentzat, izan ere, egia geroan dago, ez atzean; Elizaren mandatua, berriz, berri bat, mezu bat mendez mende ematean datza. Egitura guztiak dira zalantzan ipintzen. Irakaskintza (Elizarena) ia ezinezko kondiziotan betetzen da. Halere, Congar ez da etsirik ageri. "Elizaren historian haro ebanjeliozkoenetako bat bizi dugu" dio. Elizak ez du aski, Paulorekin lehenik, Eliz-gurasoekin gero, judutar mundutik greziar mundura, kulturara igarotzeaz. "Herrian Eliza" bilakatu behar du; horrez gero, kultura askotariko bihurtu behar du.

Bernard Besret-ek, berriz, hau somatzen du Elizan: munduarekiko "lotura falta". Halere, prolema politikoaren bihotzean mistika sortzea nabari du. "Gure eginkizuna, dio, politikaren eta mistikaren arteko ezkontza egitea da".

Roger Garaudy harriturik azaltzen da, beren fedea, erantzun bat bezala baino gehiago galdekizun edo arazo bezlaa, etsipen bezala baino gehiago gogortasun bezala, eta "dualismo handiena den zeru-lur arteko dualismoa gainditze bezala", gero eta kristau gehiago ari dela ikusten duelako. Iraultzaren sustraiak Europan, dio, kristautasunean dira.

Hiru adierazpen horien ondoren izan zen elkarrizketan, hau esan zuen Georges Casalis protestante artzaiak: "Salbazioa erabateko askapena (liberazioa) da; askapena salbazioaren nahitaezko hasikin-eredu da. Politika eta mistika ezkon erazi? Bai, noski; baina, mistika-mugimendu guztien kritika politikoa egitekotan; zeren mistika mota guztiak ez bait dira errugabe, askoz gutxiago ere".

AMUNSA

ERAMAN - EKARRI'rako
AGENCIA
Transportes A L E
EUSKAL IRRATSAIOAK
ERRI GUZTIRAKO

(c) Ministerio de Cultura 2005

# ZUMAIA

## bar GOIKO

MOKAU GOXOEK
ARRAIA TA ARAGI ERREA

Urrutizkiña: 86 13 91
— ZUMAIA —

## Sorasu Etxea

— 1880'GARREN URTEAN IRIKIA —

Urrutizkiña: 86 10 53

— ZUMAIA —

## Caja Laboral Popular

ERRITAR LANKIDE KUTXA

Urrutizkiña: 86 13 71

— ZUMAIA —

## Altzibar Oiñetakoak

IGNACIO ZULOAGA

— ZUMAIA —

Salmentak, konponketak eta Argindar-ezarketak
GARANTIZATUTAKO ZERBITSUAK

## R. T. V. GAJATE

I. Zuloaga, 12 Urrutizkiña: 86 13 15
— ZUMAIA —

## ETXE ONA

JATETXEA
Eztaiak eta despedida banketetan berezia
**Parking eta Terraza**

Av. M. de Foronda, 10 Urrutizkiñak: 861284 - 861397
— ZUMAIA —

## Zubia Opildegia

FUEROEN ENPARANTZAN

— ZUMAIA —

## "TALAI - PE"

JATETXEA
MARISKO ETA OKEL ERRETAN BEREZIA
Euskalerriko jaki goxoak

Urrutizkiñak: 861392 - 861536
— ZUMAIA —

## 'Etxave IV'

JATETXEA

Euskal-sukaldea

Urrutizkiña: 86 11 96

— ZUMAIA —

## Mujika Aizpak

MERTZERIA
JOSTUNENTZAKO GAIAK

— ZUMAIA —



## ECHABE

ETXABEREN
Mueble - Etxea

Fuero'en Enparantza

Urrutizkiñak: 84 10 78
84 11 24

ZARAUTZ

## Auto Servicio PEÑA

BERIBILLAK GIDARI GABE, GARBIKETA TA KOIPETZEA

Avda. Juan Belmonte Urrutizkiña: 86 13 21
— ZUMAIA —

## Migel Sasiain

ARATEGI TA TXERRIKIAK
Plazan eta Zunbillo Kalea Urrutizkiña: 86 10 61
— ZUMAIA —

## EGURKO

«EGURKO» MAKINEN EGILLEA
EGURRA ONGI LANTZEKO TREBEAK

Foronda-Kalea Urrutizkiña: 861148 - 861386

— ZUMAIA —



TXIMIST - INDAR SAILLA
Departamento ELECTRICIDAD

LANERAKO, BANAKETARAKO TA AGINTZEKO TRESNAGITZA

Aparatos de maniobra, distribución y control



OLIO - INDAR SAILLA
Departamento
HIDRAULICO

GARBE - LAHMEYER
WUPPERTAL - ALEMANIA'ko
Etxearen banaketa ta
teknika laguntza

Banaketa ta Teknika laguntza:
REX - ROTH GMBH Alemania
RUHRITAL Sp A Olio-indarra. Italia
TUROLLA Sp A. Italia

## Goimendi - Automatismo

AUTOMATISMO

Goimendi

Lantegi ta landolak:
Jolastokieta (Herrera)
SAN SEBASTIAN
Urrut. 353840 (7 ari) ta 351860
Telex. 36173 GOIME E
Erakusketa eta denda:
Iparraguirre, 15 - SAN SEBASTIAN
Urrut. 428082 ta 428625
Ordezkaritza:
Eulejio Serdan, 12. Urrut. 226625-66
VITORIA

SALTOKI

# San Pedro Kooperatiba

(1923 - 1973)
BERE BERROGEITA HAMARGARREN URTEAN
— ZUMAIA —

(c) Ministerio de Cultura 2005



# SALTOKI SAN PEDRO KOPERATIBA

## (1923 - 1973)

Aurtengo Apirilean bete dira 50 urte Zumaiako Langileen Saltoki Koperatiba sortu zela. Hori dela eta Ekainaren 17an antolatu zen jai berezi bat. Meza, batzar nagusia, ondoren amaiketakoa joan ziren bazkide guziei, eta azkenik bazkaria batzordekoek, bertako langileek eta beste zenbaitek. Ez noa igande hortan izan ziran hitzaldi, omenaldi, erregalu banatzia eta abar, aipatzera, luzeegi aterako litzake eta. Gainera oraingoz interesanteago bilatzen dut, Koperatiba zergatki, nork, nola eta zein helbururekin sortu zuten azaltzea. Dudarik ez dut jartzen orduan arkitu zituzten arazoak ez zirela nola-nahikoak izango. Horregatik pentsatu dut ez duela merezi nere kontura jarraitzerik eta sortzaile batekin elkar-izketa bat egitea erabaki dut. Norena joango, eta Zeruko Argiaren harpidedun zintzo den Rafael Atxurra-rengana azaldu naiz. Izatez Lekeitiarra, 79 urte, gizon alaia, sasoikoa, nahiz bizitza bat gure artean igaro, ez zaio Bizkaiko hizkera ahaztu.

—Kaixo Rafael hemen natorkizu lehen aipatuta bezela Z. A.-ko San Pedro Koperatibaz galdera batzuk egitera.

*—Ondo da, zuk galdetu nahi duzuna eta nik erantzungo dizut dakidana.*

—Zergatik sortu zenuten Saltoki Koperatiba?

*—Ikusten bai genuen sortuta zeuden herrietan langileentzat zituen alderdi onak, salneurri eta baita sozial ekintzetan ere.*

—Baziran horretaz Gipuzkoan zuek baino lehenagoko Saltoki Koperatibak?

*—Bai, Zarautzen, Azkoitian eta gehiago. Batez ere azkenengo hau izan genuen «maixu».*

—Nola «maixu»?

*—Hango aministradoreak asko lagundu zigun Zumaitarroi. Gure artean sortzen ziran kezka eta gora-beheretan beti laguntzeko prest zegoan gizona bai zan. Horregatik deitzen genion «maixu».*

—Nor edo nortzuk izan zinaten Koperatiba jartzea pentsatu edo erabaki zenutenak?

*—Sortzaileak elkarte bezela solidaiuak izan ziren. Hauen lana, aurreneko bideak urratu eta sortzea bakarrik izan zen.*

—Horretaz politika aldetik ere izango ziran nahaspilak, solidaiuak sortu zutela eta...

*—Bai zera. Ikusi zen lan ona zela eta politika-alderdi guzietakoek onartu zuten. Gero gainera, sozioak sortzean, horietatik junta bat jarri zen. Aurreneko presidentea Errexil izan zen eta Uribe sekretarioa.*

—Ezan duzu herrian ondo erori zela asmo hura. Horretaz bazkideak bilatzen lan errexa izan zen.

*—Bai orixe. Hasieran ehun izan ginan, eta nik dakidana nire numeroa berrogeita-bederatzigarrena dela eta lehenengo arratsaldean emana dut. Beste gainontzekoak ondorengo egunetan.*

—Bakoitzak zenbat ordaindu zenuten bazkide izateko?

*—Hogeitabost pezeta, eta beste lau edo bost Zumarragako federaziorako.*

—Garai haietako diru asko izango zen, baina hala ere denda berria dela, hura preztatzia, jeneruak zirela, dena berritik hastea izango zen, eta badakigu letrak ere berehala etorriko zirela. Diru horrekin osatzen ahal zinaten dena ordaintzeko?

*—Bai zera. Nik dirua ordutik honera batetik berrogeitamar jotzen dut. Hala ere izan ziran bat edo beste letrak ordaintzeko dirua aurreratzen zutenak.*

—Ordutik honera ze alderdi bilatzen duzu?

*—Orduan dena prolema zen. Baina denak anaiak bezela ginan. Batzuek dirua aurreratu, besteak beren lantokitik kanpora dendan lagunduaz. Orain berriz diru aldetik ondo doa eta horrek ere badu bere prolema, zenbat eta diru gehiago elkartasun gutxiago.*

—Hala da. Lehenengo denda nun, eta lehenengo langileak zeintzuk ziran?

*—Lehenengoa, orain Elena denda dena. Langileek berriz Pako Romatet eta orain Koperatibako presidente denaren izeba, Juanita Aizpurua, Aizarnako konpitteokoa ezkondu zena.*

—Badakit zenbat galdera hainbat erantzun dituzula, baina bukatu beharra daukagu. Zerbait badezu esateko Urrezko Eztaietako jaialdiaz?

*—Oso ondo pasa genuela elkartasun ederrean. Bazkari denboran esan nion lendakariari, pozik ikusiko nuela Etxabe IV gure artean kafia artzen. Lehen Hotel Iriondo, gaur Azkoinek denda daukan tokian, Juanito aitak ibiltzen zun, eta bilerak egiteko lehenengo gela han zan. Etxabe IV mutil gaztea zelarik mahaiak eta silak tolestatzen eta txukuntzen jarduten zen, eta gaur bazkaria ere bere etxean dugu. Baina bada igande hortan beste zerbait gustatu ez zitzaidana, alegia, hil diran sozioen alde izan zan mezatan oso bazkide gutxi ikusi nituela; beste igandetan bezala gutxi gora-behera. Hori bai, asanblean behin ere ez bezelako jendetza. Orain, lagun bati esaten nion bezela, jendea zergatik etorri ote da? Asanbleagatik ala amaikatagoakatik.*

—Arrazoi duzu Rafael. Jendeari gauzak eginik emateak ondoren horiek dakazki. Eskerrak zure laguntzagatik eta berriz ere ez harritu beste galdera batzuk egitera etortzen banaiz.

*—Etorri nahi duzunean edo joango naiz zuk esandako lekura.*

*ZEHOR*

# Kultura gaiak Zumaian

Gure egoera ikusita, herrigintzan ez genuke oporrik behar urtean zehar. Bainan negu aldean gehiegi "nekatzen" gera nunbait eta, ohituak gaude eskolumeak bezela udara denboran jai hartzen, hiru hilabete luzeetaz urtean zehar esku artean ibili ditugun ekintza eta arazoak alde batera utziaz.

Joera honi kaltegarri baderitzagu ere, ezin bestean uste dugu garai ona dela udarako motel-aldian sartu baino lehen, eskoletan bezela amaitzen ari den kursoaren azterketa eta kritika egiteko.

Eta gaurko hontan asmo horrekin aukeratuko dugun gaia euskal-kultura eta euskerarena da.

—oOo—

Gure kultura eta hizkuntza Zumaian lantzen eta jasotzen saiatzen diranen artean, ikastola jotzen dugu garrantzizkoena. Hau idazterakoan ikastolako urteko batzarra egin gabe badago ere, uste dugu esan leikela ikastolak urte bat izan duela. Ikastola guztiek dituzten arazoak, hots, ekonomia, legalizazioa, t.a., Zumaian ere hor daude zutik, bainan beste aldetik, ekaitzaren ondoren barealdia etorri ohi delako edo, ikastolarenganako giro on bat sumatzen dela herrian, zenbait ezaugarrik nabarmentzen du: Irakasle eta guraso arteko bilerak; gutxiena esperotako zenbait jenderen laguntza eskeintzea edo informazioa eskatzea; gazteriaren laguntza, batez ere Larraulen hartutako baserria prestatzen; elkar-hizketak irratietan, t.a. Igaz alferrikako eztabaida eta zatiketaren urtea izan bazen, aurtengoa elkartasun eta zuzpertze berri batena izan da. Bainan ikastolaren osasuna hain da ahula, ezin inolaz ere kanpairik jo. Espero dezagun guztion laguntzarekin datorren ikastaroan aurtengo joera positibu hoiek sendotu eta indartuko direla.

Gazteriari buruz eta beti gure gaiari lotuaz, aipatu beharrekoak iruditzen zaizkigu erdaldunentzako euskal-ikastaroa eta euskal-alfabetatzea.

Lehenengoan hiru talde hasi ziren "Euskalduntzen" metodoarekin. Talde bat laister desegin bazen ere, beste biak ondo eutsi diote ikastaro guztian zehar eta datorrenean jarraitzeko asmoz dira gehienak. Esperientzi hau bide urratze bat besterik izan ez bada ere, guztiz interesgarria jotzen dugu, erdaldunei gure herrian integrazio bide bat eskeintzeko ahaltasuna erakusten digulako, batez ere hauen arteko zenbaiten erantzun ona ikusi ondoren.

Aurtengo euskal-alfabetatzea ere beste esperientzi bat izan da, Freire-n metodoa gure egoerara egokitzeko. Hemen ere hiru talde ibili dira, bat emakumeekin eta beste bi gazteekin Azkenengo hauetan taldeak gutxi zabaldu ziran eta gehienbat "betiko" jendea hartu zuten, hots, lehen ere neurri batean behintzat, kontzientziatze eta alfabetatze maila bat iritxi zutenak. Metodoa bera ondo eramaten zail xamarra bada ere, guztiz interesgarria eta emankorra izan ditekeela ikusi da. Espero dugu aurten esperientzia egin dutenak datorren urtean talde berrien zuzpertzaile bilakatuko direla, ekintza honi zabaltasun gehiago emanaz.

"Aita-Mari" aretoan euskal-antzerki eta jaialdi batzuek ere eratu dira. Antzerkiek, sail honek gure artean duen ahulezia edo krisi egoera adierazi dute, zeren bai gaiak eta bai antzerkien tekniku eraketak ezer berririk ez digute eman eta sail hontan zenbateraino atzeratuak gauden adierazi digute. Kantariei buruz ere ezer gutxi berririk. Behar bada interesgarriena mugaz handiko Pantxoa eta Peilo lehenbiziko aldiz Zumaiara ekartzea jotzen dugu.

Hitzaldiak ere aurreko urteetan baino urriago izan ditugu. Sail hontan aipa dezagun Karlos Santamaria-k emandakoa, ba hortik aurrera ezer gutxi izan dugu.

Gaztetxoei euskal-dantzak erakusten dabiltzanak bere ekintzari jarraitu diote urte bat gehiago. Urtea joan eta urtea etorri, hontan dabiltzanak bere lanean erakusten duten iraunkortasuna, txalogarria dela aitortu behar.

—oOo—

Eta gainetik egindako begirada honen ondoren bezala zer esan?

Orain dela urte batzuk euskal kultura sailean egiten zen ia guztia OARGIren izenean bildutako talde txiki batek egin ohi zuen. Gaur egun askoz gazte gehiago dabil euskal kontzientzi batek bultzata zerbait egiten edo egiteko gogoz. Bainan urteko ekintzak aztertzen ditugunean ez dugu aurrerapen gehiegirik ikusten lehen egiten zanaz konparatuz.

Behar bada talde gehiegi dago, bakoitza bere ekintzatxoak aurrera eramanaz bere aldetik. Ez gera erdikoikeria eta guztia zentralizatzearen aldekoak, bainan uste dugu herriko taldeen artean ekintzak bateratu eta koordinatzen saiatu behar genukeela. Urtero "kunplitzeko" betiko gauzatxoak egitera mugatu beharrean, pentsatzen dugu elkartuta ekintza serio eta sakonagoak planteatzeko haina gazte eta kemen badagoela gaur Zumaian.

Zatiketarekin batera, kulturari buruzko planteamentu baten falta ere nabarmentzen da. Zerbait egin nahiak bultzata ekintza batzuk aurrera eramaten dira, baina beren zergaitia ez da aztertzen eta ezta ere ez ditugu lekutzen ekintza hoiek kulturaren eta Herri-borrokaren ikuspegi zabal baten barnean. Beti leku bertan bueltaka ibili gabe, aurrerabide bat markatuko digun linea bat falta zaigu eta hau gure iritziz kulturaren ikuspegi politiko batek bakarrik eman dizaiguke.

Datorren udazkenean lanean hasi aurretik, egokia litzake euskal-kultura gaietan saiatzen direnak elkartu eta plangintza orokor batera iristea. Gure iritziz hau izango litzake lehen urratsa, ondoren Zumaian herrigintzaren beste alderdi batzuk jorratzen dabiltzanekin batera, guztion ekintzari efektibidade handiena emango dien beharrezko kondizioak sortzeko.

**OLARRU**

# HAURRAK ETA JOLAS TOKIAK

Denon ahotan dagoen arazo honi buruz bi haurrek diote:

Zumaian jolas leku gutxi dago eta hasitzen naiz edozein lekutan ibiltzen eta leku batzutan errieta egiten didate.

Zumaian jolas-leku batzuk ba daude eta beheko plazan jolastu diteke bainan ez jolas danetara, alturitaka, kukuka, soka-saltuan eta gomaka bai.

Gure kalean andre batek esaten digu pelotaka ez ibiltzeko.

Iosebek (7 urte)

Zumaian ez dago txirrista eta beste gauzak dituen jolas-tokirik. Alkateari esan behar zaio.

Umeak ikasi behar dugu eta jolastu ere bai eta jolasteko toki gutxi daude, horregatik utzitzen ez diguten tokietan ibiltzen gera.

Dana etxeekin betetzen dute eta jolasteko lekurik ez.

F. Jose (7 urte)

Gauza agiria da eta komentariorik ez du behar bainan beste galdera bat sortzen zait neri: Haurrak kalean jolas-tokirik ez, eta etxeetan zer? Lotarako ez ezik lekurik bai ahal du etxean?

Ikus dezagun jeneralean nola moldatzen ditugun gero eta txikiagoak diren gure etxeak:

Egon-gela.—Etxeko tokirik komodo eta apainena, kanpokoak datozenean erabiltzeko izaten da, aldiz etxeko jende nagusiarentzat ere bai, bainan abusatu gabe, eta geldi-geldi egotekotan haurrak ere sar ditezke besteak daudenean.

Lo-gelak.—Etxeko zati haundiena hartzen dutelarik eta gauez bakarrik erabiltzen direnak.

Sukaldea.—Bizimodurako.

Eta Serbizioak noski.

Haurrak non?

Lo-gelan?, kuarto konpletua sartuz geroz ez dago ezertarako tokirik. Egon-gelan? kontuz gero! Sukaldean? ez dago toki haundirik eta enbazo haundia egiten dute.

Gainera zenbait etxek espoziziorako prestatuak dirudi, dena apain, dena txukun, bertan inor ez dela bizi ematen du, are gutxiago haurrik, eta honela edukitzea lortzen ez dutenak lotsatan egoten dira sarri. Joera honek haurraren arazoa areagotzen du.

Haurrik ez balego bezala etxea antolatzea ez da bidezko.

Zergatik ez lo-gelak haur-gelak bihurtu? Lasai jolasteko modukoak, bere lagunekin ere bai, ez gela «monisima» horietakoak haurrak bere-berea izango duena baizik. Honek ez du esan nahi gela horietatik kanpo haurrak inon ere ibiltzeko eskubiderik izango ez duenik, ez da urrik eman ere! Haurra familiaren atal bat denez gero hau kontuan harturik moldatutako egon lekuan nahi duenean izango du sarrera, bainan orain ardura gehixeago esijitu lezaioke zabarrago eta bere era ibili ditekeen tokia baduenez.

Haurrak mugitu egin behar du, jostatu, kanpoan eta etxean. Etxeak haurrarentzat bizi-leku egokia izatera iritxi behar du.

E. S.

(c) Ministerio de Cultura 2005

# LASARTE


## Antxon

ERLOJU TA BITXITEGIA

Estacion, 16 Urrutizkiña: 36 10 54

— LASARTE —

## "Bernardita"

ZURE NEURRIKO JERTSEYAK ETA EMAKUME, NAIZ NESKATXA, NAIZ MUTILLENTZAKO JANTZI ERA ASKOTAKOAK, ZATOZ ETA AUKERA ITZAZU.

Gen. Mola, z/g. Urrutizkiña: 36 21 61

— LASARTE —

## J. L. AZANZA

ORDULARI TA BITXITEGIA
GUZI OIEN KONPONKETA

Estacion, 30 Urrutizkiña: 36 18 61

— LASARTE —

## ZABRAN LANTEGIAK

Era guztietako konponketak: txapa, mekaniko pinturak, argindarra, etc.
SERVO FRENO-ren ezarketa azkar eta ekonomikoak.
Garabi edo grua zerbitsuak.
Bezero edo adiskidei jai zoriontsuak ZARBLAN-ek ospa die.

Karretera Jeneralean Urrutizkiña: 36 15 20

— LASARTE —

## RADIO GOYARAN

BERE LAGUN EROSLEARI, BAITA LASARTEKO HERRI GUZIARI, «SANPEDROTAN» AGURTZEN DITU

Av. Txurruka, 11
Urrutizkiña: 36 12 90
— LASARTE —

## ZERUKO ARGIA SALTZEN DA:

ELGOIBAR
M. Gereatxe

EIBAR
Angera
Markina
Iriondo
Eguren
Gisasola
Barela
Alday
Aranburu
Estanko. 11
Isasi
Simon
Amana
Urain
Urizar
Siglo XX

## CAJA LABORAL POPULAR

LANKIDEEN AUZO AURREZKI ONTZIA

Gral. Mola, 4 Urrutizkiña: 36 20 73

— LASARTE —

## 'AZPEITIA' Erredizak

AUKERA AUNDIKO MUEBLEAK, GELAK ETA ETXE-APAINTZEKO TRESNA GUZIAK ESKURATUKO DITUZU GURE DENDAN.

Estacion, 31 Urrutizkiña: 36 18 70

— LASARTE —

## ARRUPE

TELEBISTAK, OZTAILUK, GAÑAN-ELEKTRIKA
GUZTIAK EGITEN DIRA
ORDAINTZEKO ERREZTASUN AUNDIAK

Estacion, 15 Urrutizkiña: 36 10 57

— LASARTE —

## ARZULF, S. L.

«SULF-INUZ LANBIDEA

Kale Nagusia, 36 (Urnieta) Urrutizkiña: 36 11 45

— LASARTE —

## Banco San Sebastian

(Espaiñiar-Amerikar diru etxearekin elkartua)

Etxe Nagusia: Avda. de España, 19. DONOSTIAN

Donostiako Auzo Diru Etxeak:
Amara: Sancho el Sabio, 31
Anoeta: Isabel II, 12
Antiguo: Matia, 58
Azkuene: Azkuene, 3
Eguia: Eguia, 3
Gros: Gral. Primo Rivera, 19

Gipuzkoan zehar:

Alegin, Ataunen, Azkoitian, Azpeitian, Beasainen, Zestuan, Eibarren, Elgoibarren, Eskoriatzan, Hondarrabian, Getarian, Hernanin, Irunen, Lezon, Arrasaten, Oiñatin, Orion, Ormaiztegin, Pasaian Errenterian, Seguran, Tolosan, Urnietan, Bergaran, Ordizian, Zarautzen, Zumarragan, Zumaian.

ARABAN. Ortiz de Zarate, 7 — GASTEIZEN
NAFARROAN — ELIZONDON
BIZKAIAN. Gran Via, 28 — BILBAON
SANTANDERREN — CASTRO URDIALESEN

LASARTEN: Kale Nagusia, 1

RENAULT ETXEAREN LEGEZKO ORDEZKARIA

## AUTO - ORIA

Berebilen era guztietako konponketak
Autoen salmentak. Okasio onekoak ere bai
Gruaren zerbitzua
Gestoria eta Aseguroak

Iñigo de Loyola, 11 — LASARTE — Urrut.: 361507 - 361432

## Anaiak

«Anaiak», moda-gaiak, denda eder eta aukera aundikoa agertzen dizute. Emakume, aur eta gizakumeak, nai dutena billatuko dute emen.

Gral. Mola, 6 — LASARTE — Urrutizkiña: 36 15 82

Erredizak

## inchausti

Erakusketa eta Salmenta:
Estazio Kalea, 21 — LASARTE — Urrutizkiña: 36 15 80


(c) Ministerio de Cultura 2005

# Lasarte-Usurbil Ikastolako Oihartzunak

## Izarrak

Izarrak, zuek zarete ilunaren bizia. Badituzu lagunak ere; ilargia eta izarbelak. Nik hemen luditik ikusten zaituztet eta ttipi ttipiak zarete.

Eguna hasten denean, zuek gorde egiten zarete, eta eguna hasten da. Gauean ohera sartzerakoan han zaudete alai-alai jolasten berriro eta oso argiak zarete.

Izarrak! Nik nahi nuke han goian egon eta ikusi lurra zer ttipia den. Izarrak, zuek zer ederrak zareten!

Izarrak! Nik zuentzat mundu honetan txoko ttiki bat gordeko dut, eta tokitxo hortan egongo naiz ni beti.

Izarrak, astronautak ikusi zaituzte, baina ez didate esan nolakoak zareten.

Izarrak, izarrak ni astronabe batetan zuen bila joango naiz.

Mari Jose Olaziregi
(10 urte)

## Itsasoa

Itsasoa, ze polita zeran bainan zer tristea. Gauero-gauero zer isiltasuna dagoen. Beti olatuak honuntz etorri eta joan egiten dira. Bai, polita zera. Egunero begiratzen danean itsasoa urdin urdin ikusten degu. Baina tristura ematen dezu.

Udan jende asko etortzen zaizu. Eta neguan berriz, isil-isilik egoten zera. Ezeren hotsik ez da entzuten. Bakarrik olatuak etorri eta joan egiten dira.

Bainan zer gauza polita eta tristea. Batez ere neguan bakar bakarrik egoten zera. Zuri begiratu egiten dizugunean negarra egiteko gogoa ematen duzu.

Eguzkia ateratzen danean itsasoa alai-alai egoten da. Baina eguraldia tristea eta laino badago zuk ere zer tristea ematen dezun. Goitikan begiratuta negar gurea ematen duzu.

Izaskun (11 urte)

## Txoria

*Txoria, zu oso polita zara. Nik asko maite zaitut. Zuk ni ere asko maite behar nauzu.*

*Ni zure ondora joaten naizenean ikaratu eta ihes egiten duzu, bainan nik ez dut nahi zuk ihes egiterik, horrela triste jartzen naiz.*

*Guk etxean txori txiki bat genuen eta izena Pittitt zuen. Prexixo txori harek ere hil egin behar zuen eta nik izugarrizko pena hartu nuen, bainan orain beste txori bat ekarri du nere amonak eta gainera bestea bezalako polita eta izena du Txiruli eta orain asko poztu naiz.*

*Edurne Iradi (8 urte)*

## Dirua

Dirua, txikia zara batzuetan, baina asko balio duzu. Zurekin joaten naiz ni jolastera, zurekin gauza asko erosten ditut.

Jantziak asko balio dute eta etxeak eta janariak; baina zurekin dana konpontzen da.

Dirua, zu kajoietan eta poltxikuetan zaude. Lapurra beti zurekin dago eta gizon zuhurra ere bai.

Batzutan borobila zara eta besteetan lauko luzea. Paperez eta burniz egina zaude.

Balaiak eta erazten dituzunean oso pozik jartzen naiz eta beti hortarako behar zenuke.

Eduardo (7 urte)

## Mundua

Mundua, zuk arraza asko dituzu, batzuek gerra nahi dute eta besteek ez. Orain 30 urte egon gera gerrarik gabe.

Arraza batzuk oriak dira, besteak txuriak ni bezela. Zuk toki asko dituzu: Txina, Rusia eta horrelakoak. Zuk gizon asko dituzu. Milla baino gehiago.

Mundua, zergatik zera txikia eta Saturno haundia? Baina polita zera zure koloreekin eta gainera egan egiten duzu. Gauza guztiak dituzu eta den-denak oso politak dira. Eskerrik asko Mundua.

Iñigo I. (7 urte)

## Nekazaria

*Nekazariak goiz-goiz jeiki eta lanari ekiten diote, behiak jetzi, esneak marmitan edo baldean sartu eta kalera irtetzeko esnea presto jarri eta goiz-goiz kalera irtetzen dira esnea banatzera.*

*Guk zenbat kalte egiten diogun baserritarrari! Bai, guk kalte asko egiten diogu. Esate baterako orain izendatuko ditugunak: sagarrak ohostu, belardietan exeri eta belardiak ondatu eta gu konturatzen ez geran beste kalte asko ere bai.*

*Zenbat irabazten du baserritarrak? Zoritxarrez lan da lan egin arren ez du gehiegi irabazten. Horregatik baserritarrak gutxitzen ari dira. Orain dagozen baserritarrak ere, gehienak lantegietan lan egiten dute.*

*Lehen neure herri Lasarten baserritar asko zen, baina orain asko gutxitu da. Baserri asko eta asko huts-hutsik gelditu dira. Beste asko eta asko etxe edo eskola berriak egiteko bota egin dituzte eta baserririk gabe baserritarrik ez.*

*Nekazariak basoak, zelaiak, sagastiak, mendiak zaindu eta apaintzen dituzte.*

*Baserritarraren lana oso latza da. Lehen baserritarrak ez zuen ez traktorerik, ez segadorarik, ez tresna berririk. Lehen gurdia eta bi idi edo astoa erabiltzen zituzten.*

*Orain lanak errextu arren ez dira baserritar gehiago. Eta gu hoiek gabe ezin bizi gintezke.*

*Zer egin? Diru gehiago eman, ez kalterik egin eta abar. Orduan bai izango dirala baserritarrak! Asko gainera orduan.*

*Ixabel Zuaznabar*
*(10 urte)*




## JOXE MUTIL ONA

Egun batean bazegon mutil bat asko korri egiten zuana eta oso ona zan, baina beste bat gutxi korri egiten zuana eta oso gaiztoa zan.

Mutil on horrek Joxe izena zuan eta gaiztoak Yon.

Yonek beti Joxe jo egiten zuen korrikan beti irabazi egiten ziolako. Yonek inbiri asko zeukan Joxek korri gehiago egiten zuelako.

Beti ikastolan egunero zigorra ematen zioten. Yon nazkatu zan zigorrak hartzen eta egun batean maixuak ala esan zuan: laister festak dira eta izango da karrera bat eta irabazten duanari jostallu eta diru asko emango diote eta sari haundiena urrezko kopa bat izango da eta horrela jartzen du: «Karreretan lehenbizi ateratzen danarentzat».

Denak poztu egin ziran hori aditutakoan. Denak jolasera ateratakoan entrenatzen hasi ziran. Yonek ez zuan nahi entrenatu eta Joxe entrenatzen ari zala Yonek anka jarri eta erori egin zan eta denak esan zuten: ondo al zaude Joxe? Eta Joxek: Bai ondo nago.

Maixua etorri zan eta esan zuan: zeinek egin du hori?

Inork ez zuan ezer esan, baina batek dena ikusi zuala esan zuan: Yonek egin du hori. Eta maixuak esan zuan: a bai e, orain ikusiko duzu zein naizen.

Ikastolara sartu eta Yon hantxe zegoan bi liburu potzolo hartuta esku bakoitzean. Baina egunak pasa eta ailegatu zan karrera egiteko eguna eta mutil guztiak salidan zeuden. Orduan disparo bat sentitu zan eta atera ziran denak.

Lehenbizi Yon zegoen baina atzeratu egin zan harri bat jota eta min haundia zeukan. Joxek hori ikusita karrera utzi eta bere lagunarengana joan zan eta bera azkena etorri zan.

Joxeri hori ez zitzaion inporta. Bere lagun bati lagundu zion eta hori ondo iruditzen zitzaion.

Joxek ikusi zuan nola herriko zaindariak eman zion saria Pellori eta orduan herriko zaindariak esan zuan: sari hau bestea baino haundiagoa da eta jartzen du: «herriko mutil onari».

Eta esan zuan: «Joxe da».

Eta denak esan zuten: «Gora, gora Joxe»! Orain Joxe eta Yon lagun onak dira.

AMAIA

CAJA LABORAL POPULAR

(LANKIDEEN AUZO-AURREZKI ONTZIA)

— DIRU - PRESTAKETA ELKARTEA —

Aurrezki kutxa onen laguntzak: — gizarte-saillean
— diruketa-saillean
— lantegi-zuzendaritza saillean

ZUK AURRERATUTAKO DIRUAREN BIDEZ, LANGILLE ASKORI, BERE LAN-SARI PREMITIK IRTETZEKO BIDEA SORTUKO DIEGU

Laguntza ezin obeak, etekin eta irabazirik aundienak eta illeroko sari ederrak eskeintzen ditugu

Gure landolak erri auetan idikiak dauzkagu:

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| Mondragoi | Zumarraga | Bilbo | Ermua | Munguia |
| Aretxabaleta | Elgoibar | Legazpia | Eskoriaza | Yurre |
| Elorrio | Markiña | Irun | Izarra | Bermeo |
| Barakaldo | Bergara | Durango | Ondarrabia | Lasarte |
| Ondarroa | Altsasua | Amorebieta | Galtzaraborda | Enenderian |
| Andoain | Eibar | Azpeitia | Lekeitio | Santurce |
| Plazentzi -Soraluze- | Tolosa | Ernani | Llodio | Zumaya |
| Oñati | Pasai San Pedro | Zarautz | Recaldeberri | Donostia |
| Ormaiztegi | Errenderi | Sestao | Agurain | Iruña |
| Beasain | Billabona | Ordizia | San Andres | Deba |
| Gernika | Gazteiz | Antiguo -Donostian- | Azkoitia | Anzuela |


(c) Ministerio de Cultura 2005

# USURBIL


**larrañaga**

BERATZAK
INDUSTRI - GAIEN OZKAGILLEA

Industri Poligonoa, 36, z/g. Urrutizkiña: 36 14 46
— USURBIL —

**JAIKI**

SORTAKETARAKO PLASTIKOZKO INDUSTRIAK

Industri Poligonoa, 36 Urrutizkiña: 36 17 49
— USURBIL —

**Orkoi OÑETAKOAK**

Bloque, 2 Poligono, 2
— USURBIL —

**BAR ZENDOIA**

Kale Nagusia, 25 Urrutizkiña: 36 12 20
— USURBIL —

NEKAZARI - ELKARTE
**ALKARTASUNA**

PENTSUA - TRESNAK - ZOMORRO - ILGARRIAK
LURRARENTZAT ONGARRIAK
NEKAZARIAK BEAR DUAN GUZIA

Kale Nagusian Urrutizkiña: 36 11 14
— USURBIL —

**LEHOR**

GARBITEGIA

Kale Nagusia, 25
Urrutizkiña: 36 25 60
— USURBIL —

**ARROSPIDE**

OÑETAKOAK

Kale Nagusia, 20
— USURBIL —

MUEBLES
**Merche**

Sukalde eta gainontzekotarako aukera osoa

13 Pilogono, 7
— USURBIL —

**BAR Patri**

Kale Nagusia, 11
Urrutizkiña: 36 10 25
— USURBIL —

**Txaro Arze**

ILLE - APAINTEGIA
Illearikoak
Buru-larru gaitzen endaketak

Etxebeste Kalea, 1 Urrutizkiña: 36 11 15
— USURBIL —

**Goenaga**

TALDEA
ETXERAKO ELEKTRIKA-TRESNAK

Kale Nagusia, 1 Urrutizkiña: 36 12 18
— USURBIL —

**Roman**

BIZARTEGIA

Luis Soroa Kalea, 3
— USURBIL —

**santiago valverde, s. a.**
**irakorlak**

Lantegi tea Ofizinak Urrutizkiña: 361147 (3 ari)
— USURBIL —

**M.ª Socorro Echeberria**

ERA GUZTIETAKO JANGAI SALGAIAK

Etxebeste Kalea, 9 Urrutizkiña: 36 12 03
— USURBIL —

**Ayerbe autoserbizioa**

Irazu Kalea, 3 Urrutizkiña: 36 12 09
— USURBIL —

**bar Bordatxo**

Poligono, 2
— USURBIL —

**ARCE Harategiak**

Etxebeste Kalea, 1 Urrutizkiña: 36 11 15
— USURBIL —

**bar zumeta**

TXITXARDIN ETA TXULETARAKO
ESKU BEREZIA

TXOKOALDE Urrutizkiña: 36 27 13
— USURBIL —

JERONIMO IZAGUIRREN
**ALARGUNA**

TXITXARDINTEGI, MASKULUTEGI ETA ARRAIN FINAK

Bigarrena Etxea Urrutizkiñak: 362146 - 362147 - 361027 AGINAGA
Ibilbide Berria » 413461
— USURBIL —

**ARAMBURU** Autoserbizioa

AUKERAKO GAUZ ASKO TA BIKAIÑAK
JAI ALAI TA EDERRAK OPA DIZKIE USURBILTARRAI

Irazu Kalea — USURBIL — Urrutizkiña: 36 21 77


MINISTERIO DE CULTURA

(c) Ministerio de Cultura 2005

# H E G O A K

Askatasuna zeru urdina da. Bi gauzaok zer diren ongi daki basoan dabilen txoriak. Ez kaiolan dagoenak.

Maisua naiz. Egunero, ikastolara inguratzean, pila bat txori gaineratzen zait. Nere umeek pozezko garraisia eta zalaparta batean hartzen naute, eta zorabiozko zurrunbiloan atez barrena naramate, eguneroko esperientzi berriak sor arazten dizkien burutapen eta sentipen guztiak batak bestearen gainetik azaldu nahian... «Bai ahal dakizu zer gertatu den? Ikusi ahal duzu horrelako gauzarik? Nola zatoz horren berandu? Zeure adiskidearekin ikusi zaitugu. Eta nola? Eta non? Eta nora zindoazen? Eta orain zer egingo dugu?...».

Batak eskutik heldu; besteak bizarretik tira; honek zure kartera ireki; hark liburua gorde... Eta esan, esaten duzu: eraman dezadan, askatasuna bait da. Koru nahastuaren istilua aurrera eta bizkorrago jarraitzen da, laister algara bihurtzen, gainezka egin, eta duzun gibeleko behazuna gaisotzen zaizunean..., blasta!: jotzen duzu ukabilarekin gelako mahain gaina, eta agintarien aidea harturik, eztarriko abotsik gogorrenez esaten duzu:

—Iso!

Umeak —txoriak— baretuz dijoaz... isilduz... geratuz... ilunduz... tristatuz...

—Orain fitxak bete behar dituzue...

—Orain aditza.

—Orain diktado.

—Orain geografia.

Ikastolak ateak berrirekitzen dituenean, umeak indargabe, motel eta apal irtetzen dira etxera bidean. Ni menderatzaile bat baizik ez naiz izan.Ikastola kaiola bilakatu da.

Baina, hurrengo egunean...

Hurrengo egunean ez dut ukabilaz mahainarik jotzen. Ez dut deihadarrik egin. Umeek bai. Nik ez. Nere isilak haien isila, nere irrifarrak haien irrifarra pizten du.

Xabierrek, eskua jasoaz, mintza dadin baimena eskatzen dit.

—Zer diok, Xabier?

—Ba, atzo haserratu egin zinela gurekin. Zeuk nahi zenduena egin genduela. Ez zenigun iritzirik eskatu. Eta hori... gaizki dago!

Xabierren ondoren beste bost... hamar... hamabost umeen eskuak altzatu dira, eta guztiak diktadore bezala kondenatu naute. Gero, beren jokaera ere gaitzetsi dute; ikastolan ardura eta disziplina gehiago behar zuten.

Guztion artean heziketaren dialektika sortu dugu, elkarren arteko har-emanaren konponketa, askatasuna eta erantzukizunaren arteko ekilibrioa, norberaren eta bestearen arteko lokarri-etena, ni eta zu = gu: HERRIA.

Ikastolatik buru-makur irten naiz. Umeak poz jario. Ni nekaturik. Umeak jolastin.

Xabier menderatzaile guztien kontra jeiki da. Aldiz nere kontra. Hegoak ebaki banizkio...

Baina, nik txoria nuen maite.

IÑAKI USABIAGA
(Lasarte)

# Landaberri Ikastola

## Lasarte - Usurbil

Bi herri hauetako bi ikastolak bat egitera behartu ditu Hezierako Lege berriak. Lasarteko «Lander» eta Usurbilgo «Luberri»k, ikastola bat osatzen dute: «Landaberri» izeneko ikastola hain zuzen ere.

Ikastaro osoa daramate elkarturik. Lehendik zituzten etxeez eta igaz hartu zuten «Ugarte San Juan»go ikastetxeaz baliatzen dira hortarako. Ume txikiak, eskola-aurreko haurrak, herri bakoitzak bere parrokiaren babespean dauzka.

Baina sei urtetatik gorakoak elkarturik eskolatzen ditugu. Hauentzat bi leku dauzkagu, bat Lasarten eta bestea Usurbilgo Kalexarren. Autobus bat dugu Usurbilgoak Lasartera eta Lasartekoak Usurbila eramateko eta ekartzeko.

Bi herrietako jendez osatutako batzorde batek ere urte osoan lan egin du elkarturik.

Egia esan, nahiz eta «Sociedad Anónima» izan bai «Lander» eta bai «Luberri» bietako akzionistek askatasun osoz jokatzen utzi die ikastolako gurasoei. Ez da izan jauntxokeriarik. Ez du diruak agindu. Hauteskundez gurasoen Batzar Nagusian aukeratzen ziren batzorderako gizonak eta botoz erabakitzen ikastolako gorabeherak.

Baina elkartasun, demokrazia eta izpiritu honi lege-moldea ezarri beta gurasoz osaturik daude. Lan har zitzaion. Gorputz horri, ondo zetorkion soinekoa egin edo erosi behar zitzaion. Erostea baino egitea hobe zela garbi ikusten genuen, baina azkenean erosi egin behar izan dugu. Koperatiba moldea dela ondoen datorkiona iruditu zaigu. Berak dituela diru-laguntzarik haundienak ere ikusi dugu.

Dena den Ekainaren 17an egin zen gurasoekin Batzar Nagusia. Bertan «Landaberri» koperatiba eta beronen araudia onartu ziren. Bi urtetarako behar den batzordea ere bertan aukeratu zen botoz.

Honela geratu zen batzordea. Norberto Rozas, Jesus Mari Rekondo, Mikel Amenabar, Manolo Mendia, Jose Luis Zumeta, Joanita Lazkano, Josefina Iribar eta Jabier Pikabea. Zaintzaile konseilurako, berriz, Kerman Rekondo, Jabier Goizueta eta Joxe Mari Aldunzin.

Baina legezko batzordeak ez du bakarrik lan egiten. Lan sailetan banatzen da. Ikastolak dituen premiarik nagusienei erantzuteko daude lan sail hauek, bai hizkuntza landari, bai umeen heziera arloari, bai gurasoen heziera alderdiari, bai diru arazoari, bai laster beharko dugun ikastetxe berriari begira.

Lan sail hauek irakaslez, gaztez sail hoiek lanean jartzea eta hoien lana batzea da batez ere batzordearen lana.

Baditu Landaberri ikastolak bere gazi-gozoak, baditu bere ezinak. Baina badabil, aurrera doa.

Berriro aztertuak ditugu ikastolaren eta hezieraren helburuak. Aurrean daukagun zuhaitzak galerazi egiten omen du atzean dagoen zuhaiztia ikusten. Horixe gertatzen da askotan ikastolan ere. Une bateko gertaerak, ezinak, larriak aztoratzen gaitu. Helburuak ahaztu arazten dizkigu.

Ari gara helburu hoiek aurrera ateratzeko behar ditugun bideak eskuratzen ere. Ari gara dirubideak sortzen. Dagoenekoz erosia dugu ikastetxe berria egiteko behar dugun lurra. Baditugu 15.000 m.²

Egin dira urtearen buruan gurasoak hezieraz ardurarazteko zenbait bilera taldeka, gelaka eta batzarreka.

Ez diteke oraindik ikastolaren fruitu osoa ikus. Baina zertxobait ikus dezakezu hemen azaltzen diren lanetan. «Landaberri» ikastolako haurren lanak dituzu. Irakur hitzazu.

AZKORTE

# USURBIL



## gernikako arbola

—1—

Gernikako Arbola
zu zera gure zuhaitza
eta zuk
ez dezu gaitza.
Zu zera
Euskalerriko bihotza
Gernikako arbola
zu zera aritza.

—2—

Gernikako arbola
zuhaitz zaharrena
Euskalerriko
gizon eta emakumeena.
Ludiko zuhaitz
politena
baita Ludiko
zuhaitz onena.

—3—

Gernikako arbola
zuhaitz erregea
eta euskaldunak
bezala ez zera mehea.
Zu zera
zuhaitz emea
eta zure inguruan
dago belea.

**Iñaki Altuna (10 urte)**

**Fernando Orella**
JANGAIAK
Urdaiazpiko, gazta eta mantekillak
2 Poligono Urrutizkiña: 36 19 78
— USURBIL —

**Iparragirre Linterneia**
13 Poligono, 3
— USURBIL —

(c) Ministerio de Cultura 2005

# UDARREGI PATRONATOA

## USURBIL

UDARREGI PATRONATOA 1968garrengo urriaren 11an sortu zan bazkuna dugu. Usurbilgo kultura arazoei erantzun bat ematea izan zuen bere jaiot-asmo nagusia Patronato honek.

Ia bost urte luze igaro dira Patronatoa sortu zanetik. Bienbitartean, aldaketarik gertatu da irakaskitza alorrean. Aldaketa hauek, 1970eko abuztuaren 4ean eman zan Heziketa Legeak ekarri dituanak dira hain zuzen. Bide berriak, eta era berean arazo berriak sortuak ditu Heziketako Lege berri honek.

Patronatoa, Irakaskintza Lege honek sortu dituen bideei erantzuteko bere ahalegin guziak egiten saiatu da.

Joan zen urtean, urtarrillaren 10ean Estatutoak berrituak izan ziran. Ekainaren 4ean egin zan Batzar Nagusian berriz, Junta berria aukeratu zan.

Aurtengo urtean, bi batzar nagusi eginak ditu Udarregi Patronatoak dagoeneko. Aurrena, martxoaren 31an. Batzar hontan Patronatoaren barrengo araudia edo reglamentoa aprobatu zan. Zuzendaritzako batzordearen erdia ere berritu zan: Bigarren Batzarra ekainaren 16an egin da.

### OINARRIZKO HEZIKETA

Heziketako Lege Berria dala ta, Patronatoaren ardurapean zeuden ikastetxeak —La Sallekoa eta Guztiz Garbiarena— Oinarrizko Hezieraren ikastetxe bihurtu dira joan dan ikastarotik. Orain, "Udarregi" ikastetxe izenez ezagutuko dira. Nahiz eta ikastetxeak, bat mutillentzat eta bestea neskentzat izanaz jarraitu orain artean bezela. Bestalde, ikastetxe hauen ardura eta zuzendaritza nagusia Patronatoaren eskuetan gelditu da.

Bi ikastetxeak bat egite hau, Estaduaren diru laguntza eskuratzeko bidea izango da. Estaduak emango duan diru laguntza honi "Concierto Económico" deitzen zaio.

Dena dela, aurtengo urtean, eman behar diran pausoak emanak ditu Patronatoak eta ziur gaude, diru laguntzarik izango duala aurtengo ikastaroan "Udarregi" ikastetxeak.

Gauza hauek guztiak bidean jartzeko eta eskura ahal izateko pauso asko eman behar izan dira. Lehen esan degun bezela, aurrenik, La Salleko eta Monjetako ikastetxeak Patronatoaren izenean jartzea. Hortarako, Herriko Etxeak, ezeren oztoporik gabe, Patronatoaren eskuetan utzi ditu bi ikastetxeak. Eskertzekoa benetan Usurbilgo Herriko Etxearen jokabidea.

Hortaz aparte, jolas toki itxurazkoak ere eskoletarako eskatzen ditu Heziketako Lege Berriak. Deporte eta jolastoki berri hauek antolatzeko, herriko zenbait gizonen laguntza ere izan du Patronatoak. Beren soro eta zelaiak hortarako utziak dituzte. Txalogarria hauen jokabidea ere.

Ikusten danez, Oinarrizko Heziketako ikastetxea era hontan antolatua gelditu da. "Udarregi" ikastetxe honek 16 eskola gela ditu; 8 neskentzako, eta beste zortzi mutillentzako.

Hontaz aparte, bi parbulo eskola ere aurtengo ikastaroan arituak dira. Parbulo eskola hauek bi izkuntzatan erakusten diote aurreri, oraingo Lege Berriak agintzen duanez.

### BATXILLERRA

Batxiller ikasketak ere izan ditu bere gora-beherak. Oraingo Heziketa Legea dalata, batxiller guzia berritua izan da. Lehengo batxillerraren zati bat, Oinarrizko Heziketan emango da. Beste zati batek berriz, Batxiller Polibalentea osatzen du.

Aurtengo ikastarora arte, monjetan emana izan zan batxillerra. Baina oraingo Lege Berriaren araura, 20en bat neska besterik etziran gelditu batxillerra ikasteko.

Izan ere hain neska gutxi izateak, eta hiru urte ezberdinetan egoteak ezinezkoa egin zuan batxiller maillako ikasketak ematen jarraitzea. Horregatik, Patronatoak, nesken gurasoekin hitz egin ondoren, batxillerra kentzea erabaki zuan. Era berean, ahalegin guziak egin ziran batxiller ikasketak egiteko ikastetxe berriak billatzen. Eta bai arkitu ere. Neska batzuk Donostiako Institutora eta kolejioetan sartu ziran, beste batzuk berriz Hernaniko Institutoan matrikulatu ziran.

### PROFESIONAL HEZIKETA

Profesional mailako heziketak ere arazo gogorra ageri digu gure herrian. Maila hontako Usurbilgo neska-mutillak, herritik kanpora joan beharrean arkitzen dira egunero beren ikasketak egitera. Hernanira, Zarautza, Donostiara, Andoainera... batipat.

Usurbilek eta Lasartek, 16.000 bizilagun inguruko herrialdea osatzen dute. Bestalde, Donostia inguruko industriarik haundienak ere ballara hontan arkitzen dira. Halaz ere, Profesional ikastetxe bat bakarrik ere ez dago hemen.

Lanean hasi behar duten neska-mutillen heziketa baterako, nahi eta ezkoa dugu era hontako ikastetxe bat. Gurasoek arduraz hartu beharreko gauza iñundik ere hau. Era berean, hemengo fabrika eta industriak ere erantzukizun haundia dute, zer eratako profesional ikasketak konbeni diran antolatzeko orduan.

Patronatoa prest dago, bere aldetik, datorren ikastaroan bertan, profesional mailako lehen urtearekin hasteko. Herriaren, eta batez ere, industri gizonen laguntza beharrean arkitzen da hortarako.

### AURRERA BEGIRA

Une hontan, Udarregi Patronatoak larehun bazkidetatik gora ditu. Bazkide edo sozio bakoitzaren kuota 400 pezeta da urtean. Patronatoko bazkide izateak garrantzi haundia du batez ere Udarregi ikastetxean beren seme-alabak dituzten gurasoentzako. Izan ere, gertatu baititeke "Udarregi" ikasetxeak, eskatzen duten haur guziak hartzeko aiña lekurik ez izatea. Orduan bazkide diranen semealabek izango dute eskolan sartzeko aukera lehendabizi.

Dena dela, eskola aldetik egin behar dan lana, ez da maixu batzuen edo monja batzuen edo Patronatoko Juntako zortzi-edo hamar gizonen egiteko hutsa. Ez eta gutxiagorik ere. Herri guziak eta batez ere gurasoek dute lanik nagusiena. Ez baita aski haurrak eskolara bialdu eta... lasai gelditzea.

Denon artean, eta denok batean, egin beharreko lana dugu haurren heziketa. Gaur egiten ez duguna, bihar egitea gaitza izango da. Eta haurren heziketa, biharko egunari begira, gaur egiten dugun lanik nagusienetakoa dugu, dudarik gabe.

ANDATZA





(c) Ministerio de Cultura 2005